




# OPOSIZIOAK ESPEZIALITATEKA ETA KONTRATAZIO ZERRENDA INTEGRATUEN KUDEAKETA IRAKASKUNTZA PUBLIKO EZ-UNIBERTSITARIOAN





## **OPOSIZIOAK ESPEZIALITATEKA ETA, KONTRATAZIO ZERRENDA INTEGRATUEN KUDEAKETA IRAKASKUNTZA PUBLIKO EZ-UNIBERTSITARIOAN**

STEILASentzat “zerrenda bakarraren” kontzeptuak barnebiltzen ditu bi elementu: oposizioak espezialitateka egitea eta kontratazio zerrenden kudeaketa beste modu batez aurrera eramatea.

### **OPOSIZIOAK**

Lehenengo, esan behar dugu gaur egun indarrean dagoen oposizio sistemaren kontra gaudela, erabat memoristikoa baita eta, gure ustez, ez da izangaien gaitasuna bereizteko tresna egokia. Hala ere, sistemaren aldaketa Nafarroako Hezkuntzaren Departamentuaren eskuetan ez dagoenez, lan egin behar dugu sistema hau ahalik eta justuena izan dadin.

Une honetan sarbide dekretuak ahalbidetzen du oposizioak egitea gaztelaniaz edota lurralde bakoitzak duen berezko hizkuntzan (nahiz eta gero plaza batzuk izan atzerriko hizkuntza profilarekin). Guk proposatzen dugu oposizioak egitea bereizkeitarik egin gabe hizkuntzaren arabera, espezialitateka soilik. Uste dugu pertsona batek arloaren ezagutza erakusten badu ongi dakizkien hizkuntzetan gai izango dela jardura didaktikoak aurrera eramateko. Gaur egun, Nafarroan irakasle euskaldunok gutxienez elebidunak gara eta, berez, gai gara bi hizkuntzetan, gaztelaniaz edo euskaraz, klaseak emateko. Oposizioen gardentasuna eta aukera berdintasuna bermatzeko zaindu beharko lirateke zenbait gauza:

Maiz, izangaien kopuruaren arabera, epaimahai bat baino gehiago osatzen da. Berez, ez dago inolako arazorik espezialitate bakoitzeko epaimahai bat, edo bat baino gehiago, osatzeko hizkuntza bakoitzean. Komenigarria litzateke, orain arte egin ez den bezala, koordinatuak izatea.

Ebaluatzeko irizpide zehatzak eta garatuak izan beharko lirateke, publikoak eta aldez aurretik ezagunak. Horien arabera azterketak zuzendu eta, hala eskatzen denean, izangaien aurrean jarritako notak justifikatzeko.

### **ZERRENDA INTEGRATUAK**

#### **Zerrenda bereizien aurrekariak**

D eredua Nafarroako hezkuntza publikoan sortu zenean 80. hamarkadan, hasierako irakasle kontratatu euskaldun horiek beste irakasle guztiekin batera zeuden zerrenda bakarrean. Nafarroako Gobernuak Hezkuntzaren gaineko eskumena jaso zuen 1990-91. ikasturtean, bide batez egoera horrek jarraitu zuen 1991. urte arte, UPNk urte horretan hauteskundeak irabazi eta gobernua osatu zuen arte. Geroztik zerrenda bereziak ditugu Nafarroako hezkuntza publikoan. Segregazio egin arteko kudeaketa ona zen.



Bidenabar, esan behar da Nafarroa izan dela azken komunitate autonomoa urte osoko bakanteak eta ordezkapenak esleitzeko aplikazio informatikoa eskuratu duena. Maiz esan zaigu aplikazio hori garestia zela eta horregatik ez zela jartzen, baina Errioxan, adibidez, orain dela 10 urte eskuratu zuten. Horrela, orain arte, ekaineko lanpostu esleipenean izangaiak behartuta egon dira hurrenkeran lehen ateratzen zen espezialitatean eta hizkuntzan aukeratzeko, bestela arriskatzen ziren plaza ez hartzera eta kanporatuak izatera. Orain aldiz, aplikazio informatikoarekin pertsona guztiek parte hartuko dute haien espezialitate guztiekin, baina momentuz, ez hizkuntza guztiekin.

## Oraingo egoera

2007tik oposizioak eta kontratazio zerrendak loturik daude, data hori baino lehenago bereizturik zeuden. Gogoratu behar da PPK bultzatu zuela modu hori, eta hemen UPNek inposatu, lehentasunezko zerrendak ezartzerakoan eta sindikatu gehienen iritziaren aurka ezarri zela. Legealdi honetan, Aragoiko, Balearretako eta Valentziako aldatetako gobernuek oposizioen eta kontratazio zerrenden arteko lotura hau bertan behera utzi dute sindikatuarekin negoziatu ondoren.

Gaur egun kontratazio zerrendak bereizturik daude espezialitateka eta espezialitate bakoitzeko bi zerrenda daude bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Baina beste hizkuntzen kasuetan ez dago zerrenda bat hizkuntza bakoitzeko, baizik eta pertsona batek baldin badu ingelesa, frantsesa edo alemanaren C1 edo B2, edo ezagutzen badu keinu-hizkuntza, hau islatzen da kode baten bitartez.

Euskararen eta gaztelaniaren artean dagoen zerrenden bereizkeria hau Nafarroako Hezkuntza Departamentuan besterik ez da existitzen:

Estatu Espainiarrean ez da beste inon gertatzen irakasleekin, komunitate horretan gaztelaniatik aparte beste hizkuntza berekia badute. Horrela Asturiasen, EAEn, Balearretan, Galizan, Katalunian eta Valentzian zerrendak espezialitateka antolatzen dira.

Nafarroako administrazioan irakasleekin bakarrik gertatzen delako; Osasun Departamentuan edo Nukleoan segregaziorik gabeko zerrendak daude. Berdin jazotzen da ikastetxeetan lan egiten duten beste kolektiboekin: administrariak, atezainak eta zaintzaileak.

Beste eredu bat dugu Iruñeko Udal Haur Eskoletan, hautagaiak denak batera zerrendatzen dira puntuazioaren arabera eta bere hizkuntza profilak (ingelesa eta euskara) agertzen dira.

Guk proposatzen dugun zerrenda integratua ez da espezialitate bakoitzerako zerrenda bat, baizik eta kidego bakoitzerako bat, bat Haur eta Lehen Hezkuntzan eta beste bat Hezkuntza Ertainetan. Horretarako bereiztu beharko lirateke oposizioak eta zerrenden kudeaketa.

Zerrendak ordenatuko lirateke puntuazioaren arabera baremo objektibo baten bitartez eta bertan agertuko lirateke pertsona bakoitzak dituen espezialitateak eta hizkuntza profilak.

Ordena eta aukeraketarako mekanika lekualdaketa lehiaketarako erabiltzen dena bezalakoa izanen litzateke. Izangai bakoitzak bere gaitasun eta hizkuntza guztien bidez parte har lezake kontratazioan. Aukeran izanen du zenbait gaitasun eta hizkuntza bere profiletik saihetsean uzteko aldi baterako. Bide horretatik, 6 profil egonen lirateke irakas-hizkuntzak aintzat hartuta: EP (euskara profila), GP (gaztelania profila), IP (ingeles profila), FI (frantses profila), AP (alemaniera profila) eta ZHP (zeinu hizkuntza profila).

Horrez gain aukera berdintasuna bermatzeko ikasketak amaitzen dituzten izangaiei:

Kontratazio zerrenda guztiek irekita egon beharko lukete eta maiatz aldean, ekaineko lanpostuen esleipena hasi baino lehen, izangai guztien puntuazioaren birbaremazioa eginen litzateke, hau da kontuan hartuko lirateke eskuratutako esperientzia eta prestakuntza. Hau ere Nafarroan maiatzero egiten zen 2007. urte arte.